



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko uztailaren 1a

75. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea aldatzen duena (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, gardentasunari eta jarduera publikoaren kontrolari buruzkoa. Proposamena erretiratzea (6. or.).

—Foru Lege proposamena, Murillo el Frutoko Udalaren 159.224 metro koadroko herrilurraren desafektazioaren onura publikoa adierazi eta hura onesten duen ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legea aldatzekoa. Akats zuzenketa (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, zergen arloko politika orokorrari eta, bereziki, Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazioari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gastu guztiak finantza ditzan, erosahalmeneren galera dela-eta langileei osagarri bat ordaintzeko udal batzuen erabakiaren aurka Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoarekin zerikusia duten prozesu judizialek eratorritakoak. Socialistas de Navarra eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (9. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalegin gehigarri bat egin dezan 2014ko aurrekontuan, eta aurrekontu handiagoa esleiri dezan talde eta entitate artistikoentzako diru-laguntzen 2014ko deialdirako. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (10. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzenak egin ditzan, nazioko gobernuak beharrezkoak diren lege-aldaketak artikulatze aldera, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari atxikitako langile funtzionariatuak beren borondatez Estatuko klase pasiboen araubideari atxiki ahal izateko prozedura bat sortzeko. Hezkuntza Batzordeak onetsia (10. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro adieraz diezaion Espainiako Gobernuari kultur ondasunen eta zerbitzuen BEZaren igoera berraztertze beharra. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modu sistematikoan bidal dezan Nafarroako Kutxa Fundazioaren jarduerari buruzko informazioa. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege edo foru dekretu bidez gara eta arautu dezan 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntzako lehen zikloa. Hezkuntza Batzordeak onetsia (12. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du ikastolek euskara berreskuratzeko eta gartzeko eginiko lana, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du euskarazko irakaskuntza ziurta dezan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (12. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren tresnak taxutu ditzan, Nafarroako aldirietako tren lineak ixtea saihesteko. Sustapen Batzordeak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parte har dezan Lázaro Echeverría enpresaren lan-gatazkan. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, eskatzen da berehala geraraz dadila Gestión Ambiental de Navarra (Ganasa) enpresa publikoak aurkeztu duen enplegu erregulazioko espedientea. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezar dezan eguneko egoitza-egonaldien prestazioaren eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren arteko bateragarritasuna. Gizarte Politiketako Batzordeak bazter utzia (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da IKA eta AEKren euskaltegien finantzaketa-eredua molda dezan. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan estrategiko bat presta dezan Euskarabidearentzat. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da berriro azter dezan kaskoaren derrigorrezkotasuna bizikleta erabiltzaileentzat, Zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorra aldatzeko zirriborroan agertzen denaren arabera. Mozioa erretiratzea (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da saltoki handien gaineko zergaren aldaketa bat aurkez dezan. Mozioa erretiratzea (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak homofobia, transfobia, lesbofobia eta bifobiarik gabeko lurralde deklaratu baitu Nafarroako Foru Komunitatea. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, Nafarroako Gobernuak aurkeztutako Enpresen Sektore Publikoa Berregituratzeko II. Plana arbuizatzekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitie Justizia eta Bakerako Elizarteko Batzordeko kideei eta zoriontzen baititu giza eskubideen alde eta zigorgabetasunaren aurka eginiko lanagatik. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari exijitzen zaio berehala eta bere osotasunean bete dezan otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsoneri. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitie enpresa publikoetako langileei eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitu sektore publikoaren bigarren berregituraketa gelditu dezan. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Terrorismoaren Biktimak Gogoratu eta Omentzeko Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroak Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz 2012an Estatuari egin beharreko ordainketaren eguneratze-indizearen igoerari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (19. or.).
- Galdera, Erriberriko turismo bulegoaren ordutegia murrizteari buruzkoa, Galdera erretiratzea (19. or.).
- Galdera, Genero Indarkeria Errotik Kentzeko Estrategiari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egin (20. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Lan-taldea, aztertzekoa zein den gizarteratze errentaren garapena eta egoera, bai eta parlamentu-taldeek ekimen eta proposamen ezberdinak ere, Gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera. Akats zuzenketa (21. or.).
- Lan-taldea, aztertzekoa zein den gizarteratze errentaren garapena eta egoera, bai eta parlamentu-taldeek ekimen eta proposamen ezberdinak ere, Gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera. Barne-funtzionamendurako arauak (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 24an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2013ko ekainaren 19an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2013ko irailaren 23an, eguerdiko hamabietan, bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2013ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legeak zehaztu zuen zein diren Nafarroako Ibaien Saneamendurako Plan Zuzendaria garatzeko behar diren eskumen eta antolaketa esparruak, bai eta diru baliabideak ere. Foru lege horretan berean saneamendu kanona sortu zen, zerbitzu hori emateari atxikitako tributu baliabide gisa; kanonaren bilketak, toki azpiegituren planek eta Europar Batasunetik etorritako funtsek aukera eman dute Foru Komunitateak bete ditzan arazketaren arloan Batasuneko zuzentarauetan ezarritako eskakizunak, bereziki 91/271 Zuzentarauan ezarritakoa, eta haren helburuetako batzuk izan daitezzen zerbitzua zabaltzea Komunitateko bizilagun guztiengana eta Uraren 2000/60 Esparru-Zuzentarauan ezarritakoa betetzea.

Bestalde, Nafarroako Ibaien Saneamendurako Plan Zuzendariaren finantza askitasuna dela eta, autonomia osoa baitu dagoeneko Nafarroako Aurrekontu Orokorrekiko eta, beraz, autofinantzaketa saneamendu kanonaren bilketari esker, beharrezkoa da planeko tarifak aldizka gaurkotzea.

Gaurkotze hori, 10/1988 Foru Lege horren 13. artikulua dioenez, urtero egin beharko da Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legean. Nolanahi ere, eta Nafarroako aurrekontu orokorreko autonomia hori kontuan hartuta, egokia da ez lotzea nahitaez kanonaren gaurkotzea aurrekontuei buruzko legearekin, bestelako lege xedepena ere egokiak izan baitaitezke, zenbait zerga aldatu eta tributu arloko beste neurri batzuk hartzeari buruzkoa, adibidez, betiere errespetatuz Espainiako Konstituzioaren 31.3 artikuluan aurreikusitako lege erreserbaren printzipioa.

Foru lege honen testuan finkatuta gelditzen dira, halaber, saneamendu kanonaren tarifa berriak, ezin izan baitziren onetsi Aurrekontuen legean. Onetsitako zenbatekoak bat datoz NILSA sozietate publikoaren Plan Estrategikoan, haren Administrazio Kontseiluak onetsian, finkatutakoekin. Plan horren berri eman zitzaion Foru Parlamentuari Lehendakaritza, Barne eta Administrazio Publikoen Batzordeak 2012ko maiatzaren 9an egindako bilkuran.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko Foru Legea aldatzen da, halako moduan non saneamendu kanonaren tarifak gaurkotzeko egokien irizitako foru legea erabili ahal izanen baita.

Artikulu bakarra. Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legearen aldaketa.

13. artikulua aldatu da eta honela gelditu da idatzirik:

“13. artikulua:

Aplikatu beharreko tarifen zenbatekoa urtero finkatuko da foru lege batean, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

a) Finantza askitasuna, foru lege honetan adierazitako beste baliabide batzuekin batera, bertan aurreikusitako helburuak lortu ahal izateko.

b) Progresibotasuna ezarpenean.

c) Erabiltzaileentzako tratu berdintasuna, sortzen duten kutsadura mailaren arabera.”

Xedapen iragankor bakarra. Tarifa berriak

1. Aplikatu beharreko saneamendu kanonaren tarifak honakoak izanen dira, foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera:

a) Saneamenduko sare publikoetara konektatutako etxeko ur erabilerei aplikatu beharreko karga tasak: 0,53 euro metro kubiko bakoitzeko.

b) Saneamenduko sare publikoetara konektatutako ur erabilerei, etxekoak ez direnei, aplikatu

beharreko karga tasak: 0,66 euro metro kubiko bakoitzeko. Karga kutsatzaileari dagokion indize zuzentzailea aplikatuko da, hala behar denean, halaxe arauturik baitago apirilaren 5eko 82/1990 Foru Dekretuan eta abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian.

c) Saneamenduko sare publikoei konektaturik ez dauden erabiltzaileak eta beharrezkoak diren baimen administratiboak dituztenak, erakunde eskudunek emanak: 0,08 euro/metro kubikoa. Ibilgu publikora isurtzeko baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, a) edo b) letretan ezarritakoaren arabera dagokion tarifa aplikatuko da.

2. Ur banaketan aritzen diren entitateek horniduragatiko tasak arautzen dituzten ordenantzetan ezarritakoa aplikatu ahal izanen diote saneamendu kanonari ur ihesak daudenean isuria kalkulatzen den kasurako, edo hobari sozialak aplikatzeko.

3. Arazketa-instalazio pribatuetatik datozen lohiei tarifa hauek aplikatuko zaizkie tratatuak izateagatik, baldin eta onartzen badira Nafarroako Ibaiei Saneamendurako Plan Zuzendariari atxikitako hondakin-uren araztegiatiko lohien lerroetan:

Neurketa	Prezioa
5 m ³ arte	40,00 euro
10 m ³ arte	80,00 euro
10 m ³ baino gehiago	8,00 euro

4. Aurreko zenbatekoei balio erantsiaren gaineko zerga gehituko zaie.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrak gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, gardentasunari eta jarduera publikoaren kontrolari buruzkoa.

PROPOSAMENA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko Foru Lege proposamena, gardentasunari eta jarduera publikoaren kontrolari buruzkoa, erretiratu

izanari degokionez. Foru lege proposamen hori 2013ko apirilaren 9ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Murillo el Frutoko Udalaren 159.224 metro koadroko herrilurraren desafektazioaren onura publikoa adierazi eta hura onesten duen ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legea aldatzekoa.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da Murillo el Frutoko Udalaren 159.224 metro koadroko herrilurraren desafektazioaren onura publikoa adierazi eta hura onesten duen ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenaren testuan. Proposamena 2013ko ekainaren 10eko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona testu zuzena:

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Murillo el Frutoko Udalaren 159.224 metro koadroko herrilurraren desafektazioaren onura publikoa adierazi eta hura onesten duen ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legeak herrilurretako 159.224 metro karraturen desafektazioa onetsi zuen, geroago Indugarbi S.L. enpresari saltzeko, hondakinak berreskuratu eta balioztatzeko industria-gune bat eraiki zezan.

Legian honako baldintza hau ezarri zen, besteak beste:

“c) Murillo el Frutoko Udalak bere konpromisoa bete eta desafektaturiko lurrak saltzean lorturiko dirua erabil dezala alor berriak erosteko; alor horiek herrilurretan sartuko dira.”

Lege honekin saiatzen zen ahalbidetzea herrilur horien salmentaren bidez lortutako zenbatekoa, 243.787 euro, erabil dadin Nafarroako Ubideko X. sektoreko herrilur ureztagarrietan lehorreko lurak ureztalur bihurtzeko, eta ez laborantzako beste alor erabilgarri batzuk eskuratzeko, gero herrilurren sailean sartzeko.

Artikulu bakarra.

Murillo el Frutoko Udalaren 159.224 metro koadroko herriluraren desafektazioaren onura publikoa adierazi eta hura onesten duen ekainaren

24ko 7/2004 Foru Legeko 2. artikuluko c) letra aldatzen da. Hemendik aurrera, haren testua hau izanen da:

“c) Murillo el Frutoko Udalak desafektaturiko lurak saltzean lorturiko dirua erabil dezala Nafarroako Ubideko X. sektoreko herrilur ureztagarrietako lehorreko lurak ureztalur bihurtzeko.”

Azken xedapen bakarra.

Foru lege honek argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, zergen arloko politika orokorrari eta, bereziki, Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazioari buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko jabeldura, zergen arloko politika orokorrari eta, bereziki, Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazioari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko premiazko jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari.

Jabeldura, zergen arloko politika orokorrari eta, bereziki, Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazioari buruzkoa, 1990eko Hitzarmen Ekonomikoa Estatuan eta Europar Batasunean iragartzen diren erreforma fiskaletara egokitzeari dagokionez. Nahiko genuke zehaztea negoziazio hori Eusko Jaurlaritzarekin eta/edo bere lehendakariarekin batera egiteko prest ote dagoen, hori baita Nafarroako eta Euskadiko hitzarmenak modu egokian defendatzeko modu bakarra.

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gastu guztiak finantza ditzan, erosahaltenaren galera dela-eta langileei osagarri bat ordaintzeko udal batzuen erabakiaren aurka Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoarekin zerikusia duten prozesu judizialeatik eratorritakoak.

SOCIALISTAS DE NAVARRA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gastu guztiak finantza ditzan, erosahaltenaren galera dela-eta langileei osagarri bat ordaintzeko udal batzuen erabakiaren aurka Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoarekin zerikusia duten prozesu judizialeatik eratorritakoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Iragan ekainaren 13ko Osoko Bilkuran erabaki bat onetsi zen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen beharrezkoak diren instantzietan pertsonatu dadin, ukitutako udalekin batera, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea betetze aldera hartutako erabakia defendatzeko.

Aipatu mozioaren eztabaidan aukera sortu zen in voce erabaki proposamen berri bat aurkezteko, Nafarroako Gobernuak finantza ditzan izan litezkeen prozesu judizialeatik eratorritako gastuak. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak ez zuten onartu in voce proposamen hori izapidetzea.

Hori dela-eta, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeek ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du finantza ditzan izan litezkeen prozesu judizialeatik eratorritako gastuak, Gobernuaren Nafarroako ordezkariak Nafarroako Foru Komunitateko udal batzuen erabakiaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa dela-eta. Erabaki haren bidez, udal horietako langileei 2012ko abenduan osagarri bat ordaintzea onetsi zuten, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean, erosahaltenaren galera dela-eta, ekainean jasotako aparteko ordainsariaren zenbatekoaren parekoa.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 19an

Foru parlamentariak: Maite Esporrín Las Heras eta Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalegin gehigarri bat egin dezan 2014ko aurrekontuan, eta aurrekontu handi-
goa esleiri dezan talde eta entitate artistikoentzako diru-laguntzen
2014ko deialdirako.**

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2013ko ekainaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalegin gehigarri bat egin dezan 2014ko aurrekontuan, eta aurrekontu handi-
goa esleiri dezan talde eta entitate artistikoentzako diru-laguntzen 2014ko deialdirako.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahalegin gehigarri bat

egin dezan 2014ko aurrekontuan eta aurrekontu handi-
goa esleiri dezan aipaturiko deialdirako, erro-
turik dauden eta jendearen onespena duten
proiektuak laguntzarik gabe ez daitezzen gera,
2012an eta 2013an gertatu den moduan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako
Gobernua premiatzen du deialdiaren oinarriak
alda ditzan, aurrekontu-hornidura duten modalitate
desberdinak sortzeko, entitatearen eta/edo proiektu-
tuaren izaera kontuan harturik, eta proiektuaren
kalitateari emandako puntu kopurua areagotzeko
ahalegina egin dezan.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrez-
koak diren zuzemenak egin ditzan, nazioko gobernuak beharrezkoak
diren lege-aldaketak artikulatze aldera, Nafarroako Gobernu-
ko Hezkuntza Departamentuari atxikitako langile funtzionarizatuak
beren borondatez Estatuko klase pasiboen araubideari atxiki ahal izateko
prozedura bat sortzeko.**

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Ba-
tzordeak, 2013ko ekainaren 25ean egindako bile-
ran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia.
Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen
da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan,
nazioko gobernuak beharrezkoak diren lege-ald-
aketak artikulatze aldera, Nafarroako Gobernu-
ko Hezkuntza Departamentuari atxikitako langile fun-
tzionarizatuak beren borondatez Estatuko klase
pasiboen araubideari atxiki ahal izateko prozedura
bat sortzeko.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artiku-
lan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin
agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako
Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren
zuzemenak egin ditzan, nazioko gobernuak beha-
rrezkoak diren lege-aldaketak artikulatze aldera
prozedura aparteko bat ezartzeko lehenbailehen,
Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza Departamen-
tuari atxikitako langile funtzionarizatuak, beren
borondatez eta behin bakarrik, atxiki ahal izateko
Estatuko klase pasiboen araubideari.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako
Gobernua premiatzen du aparteko prozedura bat
ezar dezan, Nafarroako Gobernuak hezkuntza
arloko eskumenak bere gain hartu zituenean
administrazio publiko desberdinetatik Nafarroako
Gobernura transferitutako hezkuntza arloko fun-
tzionario guztiek aukera izate aldera Estatuko

klase pasiboen araubideari atxiki ahal izateko, beren borondatez eta behin bakarrik”

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro adieraz diezaion Espainiako Gobernuari kultur ondasunen eta zerbitzuen BEZaren igoera berraztertze beharra.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2013ko ekainaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro adieraz diezaion Espainiako Gobernuari kultur ondasunen eta zerbitzuen BEZaren igoera berraztertze beharra”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, ikusirik alorreko ministroaren adierazpenak eta sektorean izandako

emaitzak, berriro adieraz diezaion Espainiako Gobernuari kultur ondasunen eta zerbitzuen BEZaren igoera berraztertze beharra.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du BEZaren tasa murriztua ezar dezan kulturarekin zerikusia duten jardueretarako, bere adierazpenei jarraikiz.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Europar Batasuneko erakundeetan proposa eta defenda dezan kultur arlorako ehuneko 10etik beherako gehieneko BEZ tasa ezartzea”

Iruñean, 2013ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modu sistematikoan bidal dezan Nafarroako Kutxa Fundazioaren jarduerari buruzko informazioa.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2013ko ekainaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kutxa Fundazioaren estatutuen zenbait alderdi alda ditzan”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konpromisoa har dezan betiere Nafarroako Kutxa Fundazioaren jardueraren jarraipen egokia egiteko beharrezkoa den informazioa bidaltzeko Nafarroako Parlamentura, modu sistematiko eta zehatzean”

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege edo foru dekretu bidez gara eta arautu dezan 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntzako lehen zikloa.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2013ko ekainaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege edo foru dekretu bidez gara eta arautu dezan 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntzako lehen zikloa"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du haur orok duela hezkuntzarako eskubidea jaiotzen denetik, eta haien erritmoa, kultura, ideiak eta ikasteko modu berezkoa errespetatu behar direla.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euskarazko nahiz gaztelaniazko ikaspostuen eskariari erantzun diezaion, bai eta gerta litezkeen hezkuntza premia bereziei ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Europar Batzordeko umeentzako arreta sareak kalitate helburuak betetzearren (profesionalen prestakuntza, langileen lan baldintzak...) markatutako joerari jarraitzeko konpromisoa har dezan".

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du ikastolek euskara berreskuratzeko eta garatzeko eginiko lana, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du euskarazko irakaskuntza ziurta dezan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2013ko ekainaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du ikastolek euskara berreskuratzeko eta garatzeko eginiko lana, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du euskarazko irakaskuntza ziurta dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak aitortzen du ikastolek urteotan eginiko lana euskara berreskuratu eta garatzeko, eta, kontuan hartuta euskararen irakaskuntza funtsezkoa dela euskararen normalizaziorako, uste du beharrezkoa dela hura babes-tea Nafarroa osoan".

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren tresnak taxutu ditzan, Nafarroako aldirietako tren lineak ixtea saihesteko.

SUSTAPEN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Sustapen Batzordeak, 2013ko ekainaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren tresnak taxutu ditzan, Nafarroako aldirietako tren lineak ixtea saihesteko.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren tresnak taxutu ditzan Nafarroako aldirietako tren lineak ixtea saihesteko; zehazki, Iruña eta Gasteiz lotzen dituen eskualdeko tren zerbitzua, tarteko zenbait herritan geldialdia egiten duena.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parte har dezan Lázaro Echeverría enpresaren lan-gatazkan.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2013ko ekainaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parte har dezan Lázaro Echeverría enpresaren lan-gatazkan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren bidez parte-hartze aktiboa izan dezan lan gatazka horretan, egungo blokeo egoera bideratzeko irtenbide bat bilatze aldera elkarrekin.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, eskatzen da berehala geraraz dadila Gestión Ambiental de Navarra (Ganasa) enpresa publikoak aurkeztu duen enplegu erregulazioko espedientea.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2013ko ekainaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, eskatzen da berehala geraraz dadila Gestión Ambiental de Navarra (Ganasa) enpresa publikoak aurkeztu duen enplegu erregulazioko espedientea".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du berehala geraraz dadila Gestión Ambiental de Navarra (Ganasa) enpresa publikoan aurkeztu den enplegu erregulazioko espedientea.

2. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du berehala kargutik ken dezatela Ganasako zuzendari kudeatzaile José Torres Ruiz jauna, bai eta bertako Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsonak ere".

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezar dezan eguneko egoitza-egonaldien prestazioaren eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren arteko bateragarritasuna.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda-Ezkerra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezar dezan eguneko egoitza-egonaldien prestazioaren eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren arteko bateragarritasuna".

Legebiltzarreko Gizarte Politiketako Ba-

tzordeak, 2013ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2013ko ekainaren 17ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da IKA eta AEKren euskaltegien finantzaketa-eredua molda dezan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da IKA eta AEKren euskaltegien finantzaketa-eredua molda dezan".

Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak, 2013ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen

aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2013ko ekainaren 20ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan estrategiko bat presta dezan Euskarabidearentzat.

HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Ezkerreko Euzkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan estrategiko bat presta dezan Euskarabidearentzat"

Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak, 2013ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2013ko ekainaren 20ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da berriro azter dezan kaskoaren derrigorrezkotasuna bizikleta erabiltzaileentzat, Zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorra aldatzeko zirriborroan agertzen denaren arabera.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak, 2013ko ekainaren 20an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren ganean zegoela Roberto Jiménez Alli jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen zen berriro azter zezan kaskoaren derrigorrezkotasuna bizikleta erabiltzaileentzat, Zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorra aldatzeko zirriborroan agertzen denaren arabera.

2013ko ekainaren 10eko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da saltoki handien gaineko zergaren aldaketa bat aurkez dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2013ko ekainaren 26an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren ganean zegoela Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen saltoki handien gaineko zergaren aldaketa bat aurkez zezan.

2013ko ekainaren 20ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak homofobia, transfobia, lesbofobia eta bifobiarik gabeko lurralde deklaratzeko baitu Nafarroako Foru Komunitatea.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak homofobia, transfobia, lesbofobia eta bifobiarik gabeko lurralde deklaratzeko baitu Nafarroako Foru Komunitatea.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du jarduteko sexu-izaera edo -identitatea dela-eta pertsonen integritate fisikoaren eta duin-

tasunaren aurkako mespretxurik edo erasorik txikiena dakarren ekintza oro baztertzeko aldera.

3. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die beren sexu-izaera edo genero-identitatea dela-eta mespretxatuak izan diren edo eraso egin zaien pertsonen eta, halaber, arbuiatzen ditu ekintza horien ardura duten pertsonen eta/edo taldeen jarrerak eta portaerak.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, Nafarroako Gobernuak aurkeztutako Enpresen Sektore Publikoa Berregituratzeko II. Plana arbuiatzeko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Nafarroako Enpresen Sektore Publikoa Berregituratzeko II. Plana, bai eta plan horrek berekin dakartzan kaleratze eta pribatizazioak ere.

2.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak erretira ditzan Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoko enpresetarako proposatu dituen kaleratze eta pribatizazioak.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitie Justizia eta Bakerako Elizarteko Batzordeko kideei eta zorientzen baititu giza eskubideen alde eta zigorgabetasunaren aurka eginiko lanagatik.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die Justizia eta Bakerako Elizarteko Batzordeko kideei eta zorientzen ditu giza eskubide-

en alde eta zigorgabetasunaren aurka eginiko lanagatik.

2. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du nazioarteko presentziak duen garrantzia giza eskubideen arloan jarduten duten erakundeek gatazka armatuak dauden eskualdeetan egiten

duten lanerako, bi helburu betetze aldera: populazio zibilararen aurkako erasoen disuasioa eta eremu horietan egiten den lana aitortzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio adierazpen hau Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bidez helaraz diezaien Kolonbiako erakunde eskudunei eta haiek premia ditzan:

Neurri egokienak har ditzaten berehala, Aita Alberto Francoren eta Justizia eta Bakerako Elizarteko Batzordeko gainerako kideen segurtasuna eta integritate fisiko eta psikologikoa bermatzeko eta, oro har, Kolonbiako giza eskubideen defendatzaile guztiak;

Salatutako gertakizunei buruzko berehalako ikerketa egin dezan, independentea, sakona eta inpartziala, arduradunak identifikatzeko, auzitegi eskudun, independente eta inpartzial baten aurrera eramateko eta haiei legean aurreikusitako zigor penal eta/edo administratiboak ezartzeko;

Zaintzea Aita Alberto Francoren eta Justizia eta Bakerako Elizarteko Batzordeko gainerako kideen eta, modu orokorragoan, Kolonbiako giza eskubideen defendatzaile guztien aurkako jazarpen, eraso, iraintze edo beldurrarazte oro amaiaraz daitezen;

Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Adierazpenean ezarritakoa aplikatzen dela ziurtatzea: bereziki pertsona orok duen eskubidea, "bakarka edo taldean, bai nazio mailan bai nazioartekoan, giza eskubide eta oinarrizko askatasunen babesa eta betetzea sustatu eta lortzekoa" (1. artikulua), bai eta Estatuak pertsona ororen babesa ziurtatzeko duen betebeharrari dagokiona, "bakarka edo taldean, indarkeria, mehatxu, errepresalia, bazterketa, izatezko edo zuzenbidezko ukatze, presio edo adierazpen honetan aipatzen diren eskubideen baliatze zilegiaren ondoriozko bestelako edozein ekintza arbitrarioren aurrean (12.2 artikulua)."

Giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua bermatzea herrialde osoan, Kolonbiak berretsitako giza eskubideei buruzko nazioarteko arauei jarraikiz.

Justizia eta Bakerako Batzordeak Babes Unitate Nazionalari eskatutako neurri materialak hartzea, haien bizitza eta integritatea babesteko prebentzio-neurri gisa, beren lana egiten jarrai dezaten Bogotan eta Valle Cauca, Putumayo eta Bajo Atrato eskualdeetan."

Iruñean, 2013ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari exijitzen zaio berehala eta bere osotasunean bete dezan otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsoneri.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Gobernuak ez du legezko aginpiderik ez zilegitasunik Estatuko Gobernuarekin negoziatzeko egoera irregularrean dauden pertsona etorkinei ematen zaien osasun-laguntza; izan ere, Gobernuak ez du botererik Legebiltzar honen gehiengoak onetsitako legeak aldatzeko.

2. Nafarroako Gobernuari exijitzen zaio berehala eta bere osotasunean bete dezan otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun-

laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsoneri.

3. Nafarroako Gobernuari exijitzen zaio Nafarroako Parlamentuaren gehiengoak onetsitako erabaki guzti-guztiak egiazki defendatzea, bai Estatuko Gobernuaren aurrean bai justizia auzitegien aurrean.

4. Nafarroako Parlamentuak salatzen ditu Nafarroako Gobernuak uneoro egiten dituen urraketak, nafarren borondatearen adierazpen demokratikoa den Nafarroako Parlamentu honen gehiengoak onetsitako legeenak.

5. Nafarroako Parlamentuak berresten du Nafarroan bizilekua duen pertsona orok duela eskubidea Nafarroako osasun sistema publikoan eskaintzen den osasun zerbitzu publiko eta doakoa

eskuratzeko, kontuan hartu gabe haren jatorria eta administrazio-egoera.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 25an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitie enpresa publikoetako langileei eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitu sektore publikoaren bigarren berregituraketa geldi dezan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du sektore publikoaren bigarren berregituraketa prozesua berehala gelditzea, bai eta langileen kaleratze guztiak ere.

2. Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari lan bilera ziklo bat ireki

dezan parlamentu-taldeekin, bertan aztertu eta ezagutze aldera enpresa bakoitzaren egiazko egoera, eta enpresa horiei pizgarriak emateko formulak bilatzeko, erantzukizunak argitzeko, halakorik balego, eta, azkenik, langile-kaleratzean oinarritzen ez diren proposamenak egiteko.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Terrorismoaren Biktimak Gogoratu eta Omentzeko Egunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1.- Bat egiten du urtero ekainaren 27an izaten den Terrorismoaren Biktimak Gogoratu eta Omentzeko Egunarekin.

2.- Nafarroako gizartea gonbidatzen du uneoro errespetatu eta zaintzera terrorismoaren biktimen eta beren familien oroitzapena.

3.- 2013ko ekainaren 27az gogorarazten du, egun horretako Osoko Bilkuran terrorismoaren biktimen aldeko adierazpen bat irakurrita.

4.- Terrorismoaren biktimen elkarteei eta Diputatuen Kongresuari adierazpen honen berri ematen die.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroak Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz 2012an Estatuari egin beharreko ordainketaren eguneratze-indizearen igoerari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroak Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz 2012an Estatuari egin beharreko ordainketaren eguneratze-indizearen igoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko ahozko galdera egin du, Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapidetzeko:

Jakin dugunez, Nafarroak Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz Estatuari eginiko ordainketak (Estatuarentzako ekarpena) 547 milioi euro egin du 2012an; 2011n, berriz, 490 milioi euro izan zen, eta 2010ean, 485 milioi euro.

Galdera hau da: nola liteke eguneratze-indizea hain altua izatea (57 milioi igoera, % 10 baino gehiago), Estatuaren diru-sarreraren igoera askoz ere txikiagoa izan bada urte batetik bestera?

Iruñean, 2013ko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Erriberriko turismo bulegoaren ordutegia murrizteari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2013ko ekainaren 20an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Román Felones Morrás jaunak Erriberriko turismo bulegoaren ordutegia murrizteari buruz aurkezturiko galdera erretiratu

izanari dagokionez. Galdera 2013ko ekainaren 3ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Genero Indarkeria Errotik Kentzeko Estrategiari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Genero Indarkeria Errotik Kentzeko Estrategiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz

Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Iragan ekainaren 17an, Berdintasunaren Konferentzia Sektoriala egin zen Madrilan. Bilera horretan onetsi zen Genero Indarkeria Errotik Kentzeko lehenbiziko Estrategia, 1.539 milioi euroz hornitua.

Estrategia horri dagokionez, hauxe jakin nahi dugu:

– Nafarroako Gobernuak dokumentu horri egitako ekarpenen zerrenda.

– Estrategiak jaso eta Nafarroako Gobernuak jada aplikatzen dituen neurrien zerrenda, praktikan jarri zireneko datak eta harrezkeroko urtealdi-esleipenen zenbatekoak adierazita.

Iruñean, 2013ko ekainaren 18an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lan-taldea, aztertzekoa zein den gizarteratze errentaren garapena eta egoera, bai eta parlamentu-taldeen ekimen eta proposamen ezberdinak ere, Gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da lan-talde bat sortzeko erabakiaren transkripzioan. Lan-taldea zen aztertzekoa zein den Gizarteratze errentaren garapena eta egoera, bai eta parlamentu-taldeen ekimen eta proposamen ezberdinak ere, gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera. Erabakia Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak onetsi zuen, 2013ko maiatzaren 31n egindako bilkuran, eta 2013ko ekainaren 11ko 64.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona akatsaren zuzenketa:

Hau esan ordez:

“Francisco Javier Lorente Pérez jauna”

Honakoa esan behar du:

“José Antonio Rapún León jauna”

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Lan-taldea, aztertzekoa zein den gizarteratze errentaren garapena eta egoera, bai eta parlamentu-taldeek ekimen eta proposamen ezberdinak ere, Gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera.

BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen ondoko lan-talde honen barne-funtzionamendurako arauak: "Lan-taldea, aztertzekoa zein den gizarteratze errentaren garapena eta egoera, bai eta parlamentu-taldeek ekimen eta proposamen ezberdinak ere, Gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera. Arau horiek lan-taldeak berak onetsi zituen 2013ko ekainaren 18an egintza bilkuran. Hona testua:

"Lehena. Lan-taldearen xedea da gizarteratze errentaren egoerari buruzko txosten bat egitea, bai eta aztertzea parlamentu-taldeek ekimen eta proposamen ezberdinak ere, gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera.

Behin txostena eginda, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko zaio, aurkezten diren boto partikularrekin batera –baldin eta halakorik aurkezten bada–, izan beharreko ondorioak izan ditzan.

Bigarrena. Horra lan-taldea osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

José Antonio Rapún León jauna (UPN)
 M^a Victoria Arraiza Zorzano andrea (SN)
 Bikendi Barea Aiestaran jauna (Bildu-N)
 Xabier Lasa Gorraiz jauna (Aralar-NaBai)
 Amaya Zarranz Errea andrea (PPN)
 Txema Mauleón Echeverría jauna (I-E)
 Patxi Leuza García jauna (Atxiki gabekoa)

Hirugarrena. Lan-taldeak José Antonio Rapún León jauna hautatu du lehendakari, zeina, kasua bada, lan-taldeko kiderik zaharrenek ordezkatu ahalko baitu. Lan-taldeari laguntzen dion legelaria izanen da lan-taldeko idazkaria, eta, kasua bada, haren ordezkari dena.

Laugarrena. Lan-taldeak boto ponderatuaren sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horretarako, kide-eledun bakoitzak, bere parlamentu-taldea zenbat foru parlamentariak osatzen duten, horrenbeste boto edukiko ditu lan-taldean. Atxiki gabeko foru parlamentariak boto bat edukiko du.

Bosgarrena. Lan-taldeak laguntza eta lankidetzat eskatu ahalko dio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak lan-taldera etor daitezkeen eskatu ahalko du, edo beharrezkoak diren txostenak egin daitezkeen. Orobat eskatu ahalko du gaitasun aditu diren beste batzuk ere etor daitezkeen.

Seigarrena. Lan-taldeak lan egiteko plana ezarriko du, eta lan-taldearen lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen agerraldi eta jarduerak finkatuko ditu. Plan hori Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziko dio.

Zazpigarrena. Lan-taldeak agindu zaion lana bukatu arte egingen du lan, eta lan hori lan-taldearen eraketatik hiru hilabeteko epean bukatu behar du.

Zortzigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea"

Iruñean, 2013ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

